


GOIERRITARRA

HAMABOSTEKARIA

42. zenbakia

94ko otsailak 25



Lazkao mintzagai

Hauek dira gure moduloen neurri eta tarifak

Modulo 1

Behin: 3.000 pzta.
10 aldiz: 2.500 bakoitza.

2 modulo

Behin: 6.000 pzta.
10 aldiz: 5.000 bakoitza.

3 modulo

Behin: 9.000 pzta.
10 aldiz: 7.500 bakoitza.

2 modulo

Behin: 6.000 pzta.
10 aldiz: 5.000 bakoitza.

4 modulo

Behin: 12.000 pzta.
10 aldiz: 10.000 bakoitza.

6 modulo

Behin: 18.000 pzta.
10 aldiz: 15.000 bakoitza.

Publizitate hau 3500 txokotan sartzen da,
10.000 irakurle ditu GOIERRITARRA hamabostekariak

 **88 96 12**

GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA

42. zenbakia. 94.eko Otsailak 25. Debaldeko alea. Tirada: 3.500 ale. 3.000 harpidedun.

Argitaratzailea: "Goierritarrak"
Kultur Elkartea.

Dorre-etxea, 1. (Correos-gainean).

Tfna: 889612. Faxe: 161463.

124 posta kutxa, Ordizia.

Erredakzioa: Jon Arano, Mikel Albisu.

Publizitatea: Josune Agirre.

Erredakzio Batzordea: Dionisio Amundarain, Andoni Sarriegi, Tere Irastortza, Jon Arano, Mikel Albisu, Jon Imanol Iturrioz,

Ane Martin, Loinaz Agirre, Nekane Altuna, Jesus M. Munduate, Amaia Balerdi eta Esti-txu Imaz.

Kronista eta kolaboratzaileak: Marijoxe Madariaga, Argider Mujika, Joxe Begiristain, Rufino Iraola, Jon Aldanondo, Gurutze Aldabe, Xabier Glez, Ezama, Luis Mari Barandiaran, Iker Estala, Miren Larrañaga, Arantxa Arza eta Aloña Galarraga.

Azala eta zenbait argazki: Dioni (Foto-Sistema)

Fotokonposaketa eta maketazioa:



GOIERRITARRA. Inprimaketa: ANtza, S.A. (Industrialdea, 1-2. Lasarte-Oria)

ISSN: 1132-0907

Lege Gordailua: SS-926/89

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



12. elkarrizketa, Iñaki Estensoro: "Krisi honek badu irtenbiderik"

NON ZER

4. eskutitzak

5. agenda: *intereseko telefonoak, gastronomia, bota ber-soa, Ordiziako azken feria, Zaldibia eta Beasaingo kultur egitarauak, debaldeko iragarkiak, egutegiak...*

8. iritzia txandaka: *Aisiaren zibilizazioa: nagusiak ala gatibuak?*

9. besteek esana, inkesta: *Merezi du dirulaguntza gahiagorik GOIERRITARRAK?*

10. Goierriko berri: *Guardiko zabortegi ohia*

14. hemen eta orain: *Erreka garbiketa eta bide berri-tzeak; arrastoan: Mikel Irizar*

15. herriz herri: *Lazkao, Zaldibia, Itsasondo, Legorre-ta, Idiazabal, Ataun, Ormaiztegi, eta Ordizia*

21. goierritar klasikoak: *Tomas Zumalakarregi*

22. Kirola: *Iberdrola txirrindulari taldea*

GOIERRITARRA etxean jaso nahi dut
NIK ERE HARPIDEDUN IZAN NAHI DUT

IZEN-DEITURAK

HELBIDEA

HERRIA..... TLF.

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du

GOIERRITARRAK
GOIERRIKO
UDALEN
LAGUNTZA DU

Krisia, obrak... Hauteskun-deak

Gogor ari zarete herria eta herritarren alde, gure ziurtasunaz, gure erosotasunaz eta gure gozamenaz kezkatuta kale eta auzoak aurrea zulatuta eta txikitu eta gero berreraikitzen. Aldizkari honetatik ere jaso dugu egiten ari zarenaren berri. Ez dago gaizki! Baina, badakizue, agintzen ari zarenok eta herritar xume garenok inoiz ez dugu berdin pentsatu; ni behintzat gehienetan agintarion aurka azaldu naiz, ez nik horrela nahi dudalako, gauzak egiteko zuen era goitik beherakoa delako beti, eta gu, behekoak, herritar xumeok, inoiz kontutan hartzen ez gaituzuelako. Barkatu, gaizki ari naiz: hauteskundeetan bakarrik hartzen gaituzuelako kontutan.

Noski, eta orain ere hauteskunde atarian gaudela ohartzea ez da zaila: hor ari zarete herriaren bihotzeko eta tripako mina ahaztu eta aurpegia, axala garbitu eta txukuntzen. Ditugun benetako arazoak estali eta edozeinen begien bistan daudenak konpontzen, txukuntzen, dotoretzen... Eskaparatea beti txukun! Herrian hainbeste langabetu, baldintza txarretan lanean ari direnak, behar gorrian dauden Kultur Erakundeak (Ikastola bera kasu) eta mixeria hain zabalduta dugun egun

hauetan ez al da probokazioa, milioi askoren artean igeri, baztarrak zulatuta eta berritzen aritzea? Beharra dagoe-nean egin beharrekoak dira horiek ere, baina estetika hutsak gaur egun ez du zentzurik, ez du lekurik.

Eta bukatzeko bihotza mindu didan "gauzatxo" bat: zeinen aholkuz, zeinen baimen eta oneritiz bota duzue parroki aurreko zuhaitz ederra? Birziklatzea eta Natura errespetatzen irakasteko kanpainak antolatu eta, ez si ez no, zuhaitzak mozten zabilzaten bitartean ingurugiro aldetik zuekin jai dugu. Zelaiko zuhaitzak ere bota eta ez al duzue zementuz beteko!? Zelaia zela nahi dugu eta zenbat eta berdegune gehiago, hobe! Zementua eta harria soberan baldin baduzue, nahi duzuenean hasi Kultur Etxe bat eraikitzen, adibidez; edo Gaztetxe bat, edo...

Jaione (Lazkao)

Gure intsumisoak

Aspalditik komunikabideen bidez hamaika gerra eskeintzen ari zaizkigu, beti ere haien urruntasuna medio gure bizitzatik kanpo ikusten ditugunak. Eguneroko telediarrietako irudi odoltsuak ezbaierik gabe irensten dituen gerra zein burugabe eta ankerra den azal-

tzen diguten bitartean, eta berriz ere, gure bizitzan egunerokotasuna babes-turik ezinikusiarena egiten dugu. Oraingoan, mapetan begiratzeko beharrik gabe, hementxe bertan beste guda bat burutzen ari da, gutxi batzuek hasi eta dagoeneko 4.500 gazte parte hartzen dutelarik. Intsumisoez ari gara, soldadutza ala Ordezko Zerbitzu Soziala egiteari ozenki uko egiten dioten gazteez hain zuzen.

Haien artean ditugu Juan Carlos Albitos beasaindarra eta Joseba Mintegi ordiziarra, azaroan epaituak izan ondoren bi urte, lau hilabete eta egun bat kartzelan pasatzera zigortuak izan direnak "delitu" bat bizkargainean eramateagatik: intsumisoak izatea. Egun gutxi barru (otsailean) bi goierritar hauek giltzaperatuak izango dira, beraien batera gutako askoren kontzientziak ere kartzelan sartuko dituztelarik. Horregatik, zuk ere gazte hauek jasandako egoera sala dezazun nahi dugu, beraien jarrerak gizarte militarizatu honen gaitzak agerian jartzea besterik ez baitu egiten; aldi berean, intsumiso presoekiko elkartasuna adieraz dezazula nahi genuke beraien aldeko ekimen desberdinetan parte hartuz, zure elkartasunaren bidez justizia egiten baituzu.

Goierriko Intsumisoen Sostengu Taldeak

GOZOGINTZA
PAGOSA
OKINDEGIA
Tfona: 885500 ORDIZIA

albisu
KRISTALDEGIA
Ordiziako Industrialdea - Pabellón. 40
Tel. y Fax: 88 71 58
20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)

Lirain
Lurrindegia eta Opari Gaiak
San Inazio, 14 ☎ 88 93 90 BEASAIN

LAZKAO
GARAJEA
RENAULT
AGENTZIA
Senpere Industrialdea
☎ 882442-888901
Faxa: 888901
LAZKAO

ZUHAIZKI
Zurgindegi Mekanikoa
-LEIHOAK, ATEAK
ETA ABAR
-ESKAILERAK
NEURRITARA
Beko kale, z/g.
Tel. 88 71 26
Faxa: 16 10 77
ITSASONDO
(Gipuzkoa)

Agenda

Intereseko Telefonoak

ZALDIBIA

Udaletxea880358-887450. Faxe: 885043
Kultur Etxea:888090
Kontsultorioa:880027
Eskolak:884251
Taxista:889157

ITSASONDO

Udaletxea:881170
Medikua:881359
Farmazia:887589
Eskolak:887704
Altzagako tfno. publikoa: ...880740
Urkiako lokutorioa: 806045
Erretore Etxea:881161



Errezeta



Imanol Gaztañagak emana. Zubibi jate-txea, Ordizia

ITSASKABRA PASTELA GANBEKIN

Osagaiak: 800 gr. itsaskabra (garbian), 200 gr. ganba zurituak, 12 arraultz oso, 6 arraultza gorringo, 1/4 l. tomate saltsa, 1/4 l. esnegain likidua, 2 porru, tipula 1, baratzuri 1, perrexil piskat, gatza eta olio.

Itsaskabra berdura guztiekin egosi. Egosteko uretan gatz eta olio piska bat isurtzen dira. Ganbak arinki frejitzen dira olio piskatekin zartagian. Itsaskabra egositakoan ganbe-kin eta berdurakin nahasten da,

irabiagailuz (batidoraz) pasatuz. Honi tomate saltsa eta esnegain likidua batzen zaizkio eta guztia molde batean isurtzen da. Moldea labean sartu, 180'tara, eta "baño Maria"-n. Ordu eta laurdenez eduki. Hotza zerbitzatzen da eta mahonesa-saltsaz naiz saltsa arrosaz lagundu dezakegu. Osagaiak nahasterakoan ganba batzuk osorik utzi ditzazkegu, pastela moldetik atera eta ebakitzerakoan pusketa ikusgarriak molda ditzazkezu.



Bota bertsoa



Aitor Sarriegi
Gaia: Sagardo denboraldia
Doinua: Espainian behera

Berriz ere piztu da denboraldi hila garai batean txotxa gaur sarri kanila txuleta ona eta bakailau tortila "mojon", "mojon", ta "mojon" komunaren bila probatu ez duena etorri dadila.

Astigarraga eta Hernani nabarmen baina guretzat aina badaukagu hemen. Denboraldi haseran hara nola gauden berez ere nola hain motza izaten den aprobetxa dezagun bukatu baino lehen.

ORDIZIA AUTO-ESKOLA

Aita Urdaneta ☎ 88 72 76

Carasa, Cilveti, Lacort y Cia., S. A.
EKAITZ BULEGOAK
Aseguruen korreduria
Martin Alustiza

Domingo Unanue, 3
Tfnoa: 88 69 53

ORDIZIA



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20

Tfnoa: 88 87 02

BEASAIN



ARGAZKI DENDA

Argazkien errebelatua ordu betean
Tfnoa eta Faxe: 88 04 78
Nafarroa Etorbidea, 1.

BEASAIN

Debaldeko iragarkiak

Lana

□Zure edozein motatako in-
prenta lanak egingo ditugu
GOIERRITARRAN. Dei
889612 telefonora lasai asko.

□Gestio Informatikako ikas-
ketak egin dituen neska eus-
kaldun bat harreragile, telefo-
nista edo administrazioko
edozein lanetan aritzeko prest
dago. Inork beharko balu deitu
888418 telefonora.

Salerosketak

□Ordenagailua salgai, oso
egoera onean. Tfnoa.: 889640.

□Setter irlandar zakurkumeak
jasotzen ditugu Ordizian.
881803 Juan Martin.

Etxebizitzak

□Neska edo mutil bat behar da
pisua konpartitzeko Ordizian.
Dei GOIERRITARRAra:
889612.

□Pisu bat alokatu nahi dut
Beasainen. Amoblatua. Ieta-
tik 3etara dei: 881417.

□Baserri bat hartuko genuke
ardiak jartzeko. Imanol,
766264.



Egutegiak



Kultur Ekintzak

Beasain: Martxoak 1:

"Heriotza eta gero"ari buruz-
ko hitzaldia Udaletxeko Ba-
tzarre aretoan, Jackie Palus
klaribidente frantziarraren es-
kutik. Kontsultak egongo dira.

4: Mendiari buruzko diaposi-
tiba emanaldia Aitzgorri
Mendizale Elkartearen

20,00etan. 5-6: Porteria auzo-
ko jaien jarraipena (esku egi-
taraua ikusi): txistulariak,
lehiaketa desberdinak, abes-
batzaren kontzertua, danbo-
rradak, jokuak, buruhandiak,
dantzariak, e.a. 7: Argazki-
gintzari buruzko 20 orduko
ikastaro trinkoaren hasiera.
Klase egunak: astelehen, as-
teazken, ostiral eta larunbat
batzuetan 19,00etatik

21,00etara. Matrikula (3.000
pzta.) Udaleko kultur sailean.
Antolatzaile: Ortzadar. 8:
"Shirley Valentine" filmaren
proiektzioa La Salle-San Josen,
13,00 eta 19,30etan. 10:
"Emakumea eta osasuna"ri
buruzko hitzaldi- parodia Ba-
tzarre aretoan, 16,00etan, Vir-

ginia Imazen eta Emakume or-
dezkaritzaren eskutik.

Zaldibia: Martxoak 6an

ixten da frontoiko Zaharkinak
Erakusketa Etnografikoa.
Zenbait ekintzen artean,
12,00etan Gemma Arrugaeta-
ren diapositiba emanaldia:
"Artzaiak azken nomadak";
13,00etan Erramun Martiko-
renaren kantu- emanaldia.

Askapena: El Salvadorre-
kiko elkartasunezko kanpaina
informatiboa: otsailak 19: El
Salvadorri buruzko bideoa
Beasaingo Arranon; 26: bi-
deoa Pottolo-enean, Ordizian;
martxoak 3: hitzaldia Oian-
guren institutuan; 7tik 13ra:
argazki erakusketa Ordiziako
Gaztetxean; 12: tertulia Irrikin
16,00etan, Peio Goiatxe medi-
ku internacionalista; 14tik
16ra: erakusketa Ataunen;
16tik 20ra: erakusketa Bea-
sainen.

Ordizia/Beasaingo Goardiazko botikak:

Martxoak 1: Urbizu; 2: Ato-
rrasagasti; 3: Azpilikueta; 4:

Jauregi; 5-6: Urbizu; 7: Laur-
naga; 8: Cuesta; 9: Arriola; 10:
Urbizu; 11: Atorrasagasti;
12-13: Arriola.

Ordiziako Herri An- tzokia: Otsailak 25:

"Perdidos en Africa" (10,15); 26:
"Un mundo perfecto"
(7,30-10,15); 27: "Perdidos en
Africa" (4,45), "Un mundo
perfecto" (7,30-10,15); 28:
"Un mundo perfecto" (7,30);

Martxoak 4: "El buen hijo"
(10,15); 5: "Fuga mortal"
(7,30-10,15); 6: "Asterix y el
golpe de Menhir" (4,45), "El
buen hijo" (7,30-10,15) 7: "El
buen hijo" (7,30).

Ordiziako Mendizaleak:
otsailak 27: Lizarrausti-La-
reo- Larraitx; martxoak 6:
Lizarraga-Tontor haundi-Al-
tsasu.

Pausogaizto: martxoak 4-5
Mountain-bike-n iteera.

Beasaingo Aitzgorri: otsai-
lak 27: Beasain-Sta. Marina-
Beasain; martxoak 6: Ernio

Idiazabal K.E.: martxoak 6:
Atxondo-Anboto (7,30).



MUJKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA

Erakusketa Etnografikoa ZAHARKINAK

Z A L D I B I A

Otsailak 6- Martxoak 6

Resti pelotalekuan

Goizeko 10etatik, Juntzeko 9etara ZABALIK.

EGILEA:
ARANZADI ZIENZI ELKARTEA

LAGUNTZAILEA:
ZALDIBIAKO JOALA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



Ordiziako azoka



Nobedadeak: oraingoan tomatea eta marrubi landarak. Aurrekoan udaberriko xixak. **Bertako produktuak.** Abere, gazta, landare eta arraultzetan ez da aldaketarik eman apenas aurreko asteetatik. Barazkietan ere ez ia, babarrunak 700-1.00 p.-k. eta eskarola 40-125 merkeagotu dira. **Kanpoko produktuak:** banana 225-250; kiwia 150-200; laranja 75-130; limoia 150; mandarina 200-250; sagarra 100-150;

udara 175-225. **Barazkiak:** azalora 125-150; baba 200; horburua 180-200; ilarra 350-390; leka 550-590; patata 40-45; piper gorria 350; tomatea 200-250. **Arrainak:** amorraina 650; antxoa 780; antxoilua 1.190; bakailaua 1.200; errodabailoa 1.700; itsasoilarra eta izokina 1.290; kalamarra 1.160; legatza 2.100; mediana 1.480; mihiarra 1.340; muxarra 800; sardina 480; txipiroia 1.160

Gurutze Aldabe

Deialdiak

Egonaldiak Familia Euskaldunetan

Euskara-ikasleak etxeetan hartzeko plangintzan parte hartzeko interesik izan dezaten familia euskaldunentzako laguntzak emateko modua arautzen duen Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren aginduaren kopia Goierriko Udaletxe guztietan dago honezgero. Deialdi honen zehaztasunak, inkripzio-fitxak eta gainontzeko dokumentazioa udal bulego desberdinetan eskura daitezke; dokumentazioaren aurkezpen epea 94ko martxoaren 18an bukatzen da.

Ekintzak Zumalakarregi Museoa

Ormaiztegiko Zumalakarregi Museoak aktibidade bereziak antolatu ditu Goierriko neska-mutilok parte har deza-

zuen. Astero, urte osoan zehar, Museora etorri eta gurekin ari zaitezketen. Bideoak, diapoak, komikiak, musika, buruhauskarriak, ibilaldiak... eta joko berezi bat: nola egingo zenukete 1835eko Euskal Herria zeharkatzeko karlisten eta liberalen atzaparretan erori gabe? Zatozte eta jakingo duzue! Astelehen, asteazken eta ostiraletan, 4:30etatik 5:30etara; astelehenetan 12-14 urtekoentzat; asteazkenetan 9-11 urtekoentzat; ostiraletan: 6-8 urtekoentzat. Beraz, adinaren arabera, egun eta baliabideak izango dituzue, beti ere jolas giroan egoteko. Baina erritmoa, jarduerak, erabilerak eta aktibidade berriak sortzea zuen esku dago. Argibide gehiago, Z.M.-ra deituz, 889900. Ez gelditu etxean. Zatoz eta parte har ezazu!

GOIERRITARRA aldizkariak behar ditu:

ZUZENDARI/KOORDINATZAILE BAT

Eginbeharrak:

- * Erlazio instituzionalak nahiz enpresakoak eraman.
- * Idatzi eta aldizkariako zenbait atal koordinatu.
- * Administrazioa gainbegiratu eta publizitate lanetan aritu.

Eskatzen da:

- * Kazetari tituluduna, Filologoa edo Kazetaritzan aritua.
- * Euskara, ahozkoa eta idatzizkoa menperatzea.
- * Goierritarra izatea.
- * Administrazio gaitetan aditua izatea baloratuko da.

Bidali zuen kurrikulumak, martxoaren 11 baino lehen Ordiziako 124 Posta Kutxara.

PUBLIZITATE-KOMERTZIAL BAT

Eginbeharrak:

- * Publizitate salmenta eta kobraketa arduratu.

Eskatzen da:

- * Goierritarra izatea.
- * Euskara, ahozkoa eta idatzizkoa menperatzea.
- * Komertzial lanetan esperientzia edukitzea.
- * Autoa edukitzea baloratuko da.

Zure abisu eta oharrak eskertuko ditugu.

Norbaitek artikulu edo erreportaien bat idatzi nahi badu, bere herriko kronikatxoa, iritziren bat eman edo salaketaren bat egin, lagundu nahi baligu era batera edo bestera, gure helbidera bidali edo gurekin harremanetan jartzea besterik ez du.

GOIERRITARRA, 124 p. k.
ORDIZIA Tfonoa: 88 96 12



Luis Mari
Barandiaran

*Gaurko
krisialdiak
mundu berri
baten atarian
gaudela
ohartarazten
gaitu*

Aintzinako greziar kultur klasikoaren asoian gizonaren ongizatea edo gizakitasunaren muina "arete"an kokatzen zen. Beraien esanetan, gizakitasunaren hedapena ez legoke gizakiaren ahalmen jakin batzuk trebatzean. Izan ere, "espezializazioak", trebeak garen arlo horri buruzko dependentzia sortzen baitu, eta hori, gatibuen lanaren berezitasunetariko bat da. Aitzitik, "arete"aren esangura bikainenean, gizaki libre, aktibitate politiko-erlijioso-kultural-ekonomikoetan parte hartzen duen hiritar independentea izango litzateke, hau da, *giza-ahalmen guztiak orekan garatzen dituena*. Egunoroko lana eta "arete" elkartzen ziren neurrian bakarrik, lor zezakeen norbertasunarekiko jabetza, eta bizikera hori zen gatibuari ukatzen zitzaiona. Hau da, "otium" a edo aisia.

Baina greziar munduan bertan, hiriaren konplexutasuna areagotzen joan zen neurrian eta salerosketarako merkatuak irekitzen joan ala, espezializazioaren beharra geroz eta gehiago nabarmendu zen. Ondorioz, hiritar libre ugari, *gehiago aberasteko grinak bultzatuta* edo, garai hartako aktibitate ekonomikoetan murgiltzen hasi zen. Hiritar hauek, beste aipatu aktibitateetan aritzeko astirik gabe, "nec-otium"ean (negozioan) murgildu ziren, "arete"aren ideiala ahanztiz eta ongizaterako bidetik geroz eta gehiago urrunduz.

Egoera hura paradigmaticoa gerta dakiguke gaurko errealitatea ausnartzeko unean. Halere, esango nuke, etorri errazeko onurak etengabe sortzen ari den gizarteak, "arete"aren bidea jorratzeko

Aisiaren zibilizazioa: nagusiak ala gatibuak?

inoiz ez bezalako oportunitateak barneratzen dituen arren porrot egin duela zeregin horretan.

Batetik, erdi eta goi mailako profesionalen egoera dugu. Atzo bertan oraindik, merkatuen sistema osoa eskariak mugiarazten bazuten, gaur egunean, eskaintzek mugiarazten dute eskakizuna. Beraz, gehiago irabaztearen desioak eta norgehiagokeriak "elkar jatera" garamatza. Egoera honetan *lanorduen zehaztapenak* bezala, *lanpostuaren mugiezkortasunak* bere zentzua galtzen du, *ohizko sindikalgintza* zalantzan jarriaz. Ingurune honetan mugitzen direnek ez dute denborarik euren "nec-otium"erako ez bada: otorduak, kirola, politika... dena daukate "nec-otium" horren inguruan atonduta. Laugarren sektore bezala eza gutzen dugun hau da, gehien hazten ari dena kontsumoaren zibilizazio honetan. Halere, kopuruari begira ez dirudi, gizartean, sektore zabalenetarikoa bihur daitekeenik. Bestetik, langabezitik at, azken urteotan lanorduen denbora murrizten ikusi dutenen egoera dago. Zalantzarik gabe, gehiengoaren kasua da. Gainbegiratu batetan "arete"aren bidea jorratzeko egoera ezin hobeagoan daudenak, alegia. Halere, errealitatea bestelakoa da.

Kontsumoaren zibilizazioak bakoitzaren denbora libre edo aisia ez du "bakoitzarena" egiteko erraztasunik jartzten, "kontsumoarena" egiteko ahaleginetan saiatzen da. Modaren arabera, soberan dugun hori (gainezkoa alegia) "komenigarri" bihurtzen da eta komenigarria "beharrezko" eta beharrezkoa, azkenik, "premiatzkoa". Horrela, kontsumoaren "nec-otium"ean murgilduz bahitzen gaituzte, geurea izan beharko zukeen hori irentsiz. *Gazteen denbora libre* ez da "otium" zentzuak barneratzen duen denbora, helduen "nec-otium"erako izugarrizko merkatua baizik, non benetakoa eta libreagoa den beste sasi mundu batetara ihes egiteko bidea etengabe eskaintzen zaion. Asmoa azken batean, gizarteko gazteengan garatzen den indar protestari eta iraultzailea kontrolatzea. Taldean eta ezer egin gabe egotea da luzatzen den gonbidapena, garagardoa edo edaten eta jairik jai ibiltzea. Gazte hauei beren atsegin eza janzkera eta ile mozketaren bidez soilik agertarazteko eskubidea eskaintzen zaie. Pasotismoa zein drogen kontsumoa laguntzen duten ideologiak, norberaren nahiz gizartearen errealitatearekin konprometua hartzeko gogoia oztopatzen du, halaber, dagoena aldatzeko adorea eta grina ahultzen saiatzen da.

"Arete"aren bidea jorratzen ari ez garen seinale ederrenetarikorik zera da: stressa edo onik eza. Lasaigarriak atsedenerako eta pizgarriak etengabe aritzeko, hori da gaurko bizi-moduaren leloa. Eta "aritze" hori zerbait izango balitz, gaitzerdi. Dena den, gaurko krisialdiak *mundu berri baten atarian gaudela ohartarazten gaitu*.

Besteek esana

Euskara eta erdara

"EAEn bizi den inork ez du galdu erdaraz hitz egiteko gaitasuna. Beraz, ezin da esan erdaldunen kopurua edota portzentaia jeitsi direnik. Jeitsi direnak erdaldun elebakarrak dira. (...)Gaztetatik bi hizkuntzetan eskolaratzearen ondorioz, haurrengan elebitasuna lehenago ematen da. Haur horiek etxean erderaz mintzo diren arren, oso gaztetik euskara dute bigarren hizkuntza. Gero eta familia gehiagok erabiltzen dituzte bi hizkuntzak beren etxeetan. Hala ere, aipatu beharra dago euskaldunek, gehienetan, euskaraz hitz egiten dutela beren etxeetan".

Eusko Jaurlaritzako HPI-ko Mari Karmen Garmendia ormaiztegiarrak, "Egunkaria"n, 94-II-8.



Inkesta



Merezi du dirulaguntza gehiagorik GOIERRITARRAK?



Antton Irizar

Idiazabalgo alkatea

Dudarik gabe bai. Uste dut produktu ona, baliozkoa, polita eta interesantea dela eta orain arte eman dugun dirulaguntza ez zait gehiegi iruditzen. Merezi zuen. Edozein iniziatiba eta lanei eman beharreko dirulaguntzak neurtu beharra daude, udaletxeetan ez gabiltz ondoegi. Ez dakit zenbaterainoko laguntza beharko lukeen, hemendik aurrera eman beharrekoa ere ez da gehiegi. Periodikuek gain, bakarrenetakoa eta ezer baino lehen irakurtzen dudana GOIERRITARRA da.



Rufino Iraola

zaldibitar irakasle eta idazlea

Beno, mereziko ez ditu ba? Dudarik ez dago. Hemen, Goierriko euskaldungoari erantzuten ari zaio. Nik uste dut diru aldetik nahiko eskas ibiliko zela orain arte. Ondo dabil eta aurrera egingo du, baina geroz eta hobeto erantzuteko, bada, dirulaguntzak ere geroz eta hobeagoak behar dute izan.



Xabier Mendiguren

beasaindar idazlea

Laguntzen zenbakietan ez naiz sartuko, ez baitut daturik. Baina, labur esateko, oso proiektu jatorra eta positiboa da. Bai euskara aldetik eta baita herrigintza ikuspegitik. Goierri egitearen aldetik esan nahi dut. Horrez gain, azkenaldi honetan bere kalitateak nabarmen gora jo du. Periodistikoagoa da. Bide horretan aurrera egin ahal izateko laguntza gehiago ere beharrezkoak izango ditu.

OSASUN

BELAR ETA DIETETIKA DENDA
NATUROPATA

Eska ezazu eguna eta ordua

Goierrri, 10 • Tfnoa: 88 61 14 • ORDIZIA

HEGOA TABERNA

Goierri kalea, 12 (atzekaldea)
ORDIZIA



BISITA ORDUAK

Larunbata: 11etatik, 14etara

16etatik, 18etara

Igandea: 11etatik, 14etara

Lanegunetan: 10,30etatik,
14,30etara, aurretik deituz.

☎ 80 17 24

UNTXUNDEI Garajea



OSINALDE Karrozategia

☎ 88 28 21 - 16 07 06
ORMAIZTEGI

Ba al dakizu...?

Orain 3 urte jarri zen martxan Sasieta Zabortegia Beasaingo Salbatoren. Prozesu luze baten amaiera izan zen lorpen hari esker, aurreko kontrolik gabeko zabor-botatzeak giza osasunerako dituen arriskuak eta ingurugiroan eragindako kalteak erabat baztertu dira. Hiri-jatorrizko hondakinen tratamendu-arazoa konpondu bezain pronto ordea, agerian geratu zen ingurunea erasotzen eta kutsatzen duten garai bateko Hondakin Solido Hiritarren kontrolik gabeko zabortegien errehabilitazioa ezinbestekoa zela. Bide horri jarraituz, eskualdeko Sasieta martxan jarri eta berehala, 91.ean, Itsasondo-Legorretako (Berostegiko) eta Lazkaoko zabortegiak itxi eta errehabilitatu zituen, Idiazabalgo "Guardi" zabortegia izan zelarik, zenbait arrazoi medio, errehabilitatu gabe geratu zen bakarra. Sasieta zabortegia martxan jarri arte, 6 udalerritako (Idiazabal, Segura, Ormaiztegui, Zegama, Zerain eta Mutiloko) hondakinak jasotzen zituen Idiazabalgo zabortegia; herri hauetako 6.500 biztanleek egunero sortutako 4,5-5 tona zabor. Eraikuntza sektoreko lur eta hondar ugari ere bai. Guardikoaren ikusmenarekiko eraso (errepide ondoan zegoela) eta Segura

eta Idiazabalekiko hurbiltasuna, kontrolik gabeko lixibatuen eraginez ondotik pasatzen zen errekek jasaten zuen kutsadura eta momentu batetik bestera erortzeko zuen arriskua zirela eta, nahitaezkoa zen zabortegia epe laburrean errehabilitatzea. Idiazabalgo Udalaren eta Sasieta Mankomunitatearen gestioei esker eta jabeen erraztasunei esker, Gipuzkoako Diputazio-ko Obra Hidrauliko eta Ingurugiro Sailak joan zen otsailaren 1ean hasi zituen errehabilitazio-lanak. Ia 35 miloi gastatuko dira hor. Goierriin halere, badugu oraindik zereginik. Ea urte gutxiren buruan inguruko bazterrak zabor-gunez eta zabortegiz garbitzea lortzen dugun.


Laister gartzeleratuak izango dira bi goierritar intsumiso: Juan Carlos Albitos 25 urtetako beasaindarra eta Joseba Mintegi 29 urtetako ordiziarra.

Bi gazte hauei, epaituak izan ondoren, bi urte, lau hilabete eta egun bateko gartzela zigorra ezarri zitzaion, Goierriko Intsumisoen Sostengu Taldeak dioten bezala, "delitu bat bizkar gainean eramateagatik: intsumiso izatea".

BEASAIN. Anjel Jesus Arin zenaren senideak, haren heriotzaren inguruan sortu diren hainbat bertsioen aurrean, lerro hauek aprobetxatu nahi dituzte "Txeli" Olasoro (Aralar) mendia oinetan eta birika-tronbosi eta bihotzeko baten eraginez hil zela akalaratzeko.

San Martin egunean IV Beasain Idaz-lehiaketako sariak banatu ziren Udaletxeko pleno-aretoan. Arriola alkatea eta Kutxako Ibaibarriaga jaunez gain sarituak izan ziren bertan: Adur Ezenarro, Joseba Zubizarreta, Oihana Larrañaga, Unai Galparsoro, Ekaitz Goikoetxea, Iñigo Ugarte, Eider Lopez, Manex Arrieta eta Irati Goikoetxea. Epaimahaiean Xabier Mendiguren, Mikel Sarriegi eta Xabier Gartzia egon ziren.

Gudugarreta auzoak sahesbide berria behar du. Bertako sarrera arrisku-tsua da eta arazo zahar hori Poyam enpresatik duen sarreratik abiatu bide berria eta industrialdea zeharkatuz konponduko litzateke.



-Agroturismo etxea: bi logela bikoitz bainuarekin.

-Etxeko sukaldaritza: babarrunak, baserriko oilaskoa, arkumea...

-Eguneroko menua 800 pzta. Karta 2.000 pzta batatz beste.

MANDUBIKO BENTA Jatetxea

Mandubiko gainean, Urolatik
Goierriko bidean

Tfona: 88 26 73



□Hilabete batzutatik hona martxan bada ere, Usurbeko telebista-errepetido-reak ez du betetzen bere eginkizuna guztiz: emisio-etenik ez da Beasain eta inguruetan eta hobeto ikusten da telebista, baina "itzalak" ere badira oraindik zenbait kaleetako aparailuetan.

□Herriko goiko auzunean dagoen Letamendi zonaldea birrabildu eta parke bihurtuko duen proiektua egin berri du Mikel Sarriegi injinariak. Bere aurrekontua 50 miloi ingurukoa litzateke. Parajeon garbiketa lanak hasiak daude eta ondoren bidezidorrak markatu eta bertan dagoen galtzada bat errekupe-ratuko da.

□Sasieta Zabortegiaren zerbitzu amankomunatuak ontzat jo dute, argazkian agertzen diren, Mankomunitateko arduradunek. Bailadako ikusmoldearekin buruturiko ekintza bakarrenetako dugu zabor-bilketa eta, beren us-tez, amankomuna izateak hamaika auzo eta leku urrunetara iristeko aukera eman diete. Era berean "Construcciones y Contratas, S.A."-ren langileen

profesionaltasuna azpimarratu dute. Iaz 23.242 tona zabor bildu ziren zabortegi kontrolatuan eta bilketa bereiz-tuan 1.390 tona beira eta paper berzi-klatzeko.

□HBren aldizkari berriaren lehen alea, kalean da dagoeneko. 10 urtetan ari-tutako "Gogor" aldizkariak "Beasain eginez"-i utzi dio lekua. Maketa eta estilo berriko aldizkaria 12 orriko bihilabetekari izango da. Ikuspuntu ba-tzuk dituztenez, horiek defenditu eta alternatibak aurkeztuz jarraituko du-tela diote.

□LAZKAO. Udal barrutiko mendibideak zuzentzen badago zere-gina, Zorion Mujika "D.V."ko berrie-maileak dioenez. Utzikeria izugarria da, Senperetik Iztuetako gainera, Laz-kaomenditik Kobadira, Metaliturritik Sukiara edo Izagirre basotik Esparruko mendibideetan. Horiek zuzentzeari denok ekin behar genioke.


□Lau berri labur: Urteberriarekin zu-zendaritza aldaketa eman da Maizpide Euskaltegian, Pello Joxe Aranbururen

ordez Lurdes Amundarain itsason-doarra sartu da. Kiroldegia obratan egon liteke aurtengo lehen sei hilabe-tealdian. Herriko futbolzaleek Arizti Haundi estaldurik ikusi nahi lukete. Populazioaren beherakada: herriak 5.000 biztanle baino gutxiago ditu.

□OLABERRIA. Europako Ba-tzordeak, beste zenbait enpresen ar-tean, 1.675 milioi pezetako isuna ezarri dio Olaberriko Aristrain altzairugin-tzako enpresari "sektoreko konku-rrentzia salneurrien eta merkatu bana-ketaren bidez oztopatzeagatik". Isuna ezarri nahieran orain bi urte ere ibili zi-ren. Aristrainek errekurritu egingo duela esan digu bertako buru den Juan Jose Arostegik. GOIERRITARRAren hurrengo zenbakian emango dugu berri zabalagorik JMari buruz.

□Aurreko zenbakian geniona konfir-matzen dela dirudi: Hiper Olaberriak porrot egin du urtebete honetan. 4 so-zioetatik 3 atzera bota ziren, aurrez ikusita zuten fakturazioa (3-4.000 mi-loi urteko) ez zen bete, bete ez diren bezala merkatalguneak dituen (36.000 m²etatik) 7.000 m². Dena den, notizi fresko-freskoa da sektoreko estatuko liderra den Pryca berehala erostekotan omen dela Hiperraren %100a. 2.000 miloiko operazioa izango litzateke.

□Ezkio-ITSASO. Zumarraga eta Ezkio-Itsasoko Udalak ez dira ados jartzen, Eitzako parkerako egokitutako ur-horniketa aprobetxatuz, Ezkio-Itsasora ura bideratzeko egin diren la-nen ordainketan. Proiektua gauzatu eta Ezkio-Itsasora ura bideratu da, baina bertako Udalari gehiegizkoa iruditu zaio ordaintza egokitu zaion kopurua, ia 5 miloi pezeta.



ondoeta

HALTZAIRUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

Nagusia, z/g. Telef. 883102. Faxe: 880872. 20249

ITSASONDO

LAZKAOKO ALKATEA, KARGU PUBLIKOA GHE-N ETA ORKLI-KO BURUA DA


Iñaki Estensoro: "Krisi honek badu erremediorik"

Lazkaoko gidaritza hartu zuenean, Iñaki Estensorok desafio haundi bati egin behar izan zion aurre: 12 urtetan alkatetzan egon zen Diego Gurrutxagaren hutsunea hobereen estaltzea, alegia.

"Egia esateko, hasera batean lan gogorra izan genuen bai guk nola beste taldeek ere. Diego Gurrutxagak gauza asko egin zuen herriaren alde eta bereganako estima haundia zen. Hau dela eta gure lehen asmoa, aurretik egin-dako lanari jarraipen bat ematea izan zen. Juan Felipe Barandiaran eta nere eskuetan utzi zuten alkatetza, ni buru izanik. Bion arteko elkarlana urte t'erdian mantendu zen, Lazkao, alde ekonomikoan behintzat suspertu arte."

GOIERRITARRA. *Ordutik gaur arte denbora dextente pasa da, baina zer proiektu bete eta zer gelditu da bidean?*

IÑAKI ESTENSORO. Esan bezala, lehentasuna izan zuten gaiak ekonomikoak izan ziren. Dena den proiekturen bat besteen gaintetik jartzearren, Lazkaoko Industrialdearena jarriko nuke. Eusko Jaurilaritzarekin akordio batetara heldu ondoren, lurra birpartzelatu eta gerora sortu daitezkeen enpresa berrientzako egokitua dago. Gai honi bu-



Argazkia: Dioni

ruz esan behar, urtarilak 31n administrazio kontseilua baieztatu dela, bertan egitear dagoen proiektua martxan jartzeko. Bestetik, urte hauetan egin eta egiten ari den lanik handiena, Urbanismo arloan da. Udaletxeak, Ataun bidean zeuden lurak erosi eta etxe bizi-tza sozialak egiteko erabiliko ditu. Bestetik herri erdian egiten ari diren

obra guziekin eta gune historiko artistikoa errespetatuz, egokitze prozesu bat ematen ari da.

Kale egin dugun gaitan, azpimarragarriena, kultur arloarena da. Zelaiean dagoen Orobione etxea aprobetxatuz, bertan gune kultural bat egitekotan ginen, baina bere jabea den Infantadoko Dukearen ezezkoarekin topo egin genuen. Hemendik urte batzutara Zaharren Egoitza bertara pasatu nahi du eta horren ondorioz bere ezezkoa jaso genuen.

G. Lazkaoko alkate bezala eta garapen honen ondoren, nola ikusten duzu, Beasain eta Ordiziarekin herri honek dituen harremanak?

I. E. Honi buruz udaletxean azterketa sakon bat egin genuen eta denok erantzun garbi batetara heldu ginen: Lazkao Beasain eta Ordizia bezalako herrien aurrean osagarri izan behar du. Ezin da herri haundi hauek dituzten zer-

bitzu eta eskeintzei aurre egin eta honen ondorioz zera pentsatu genuen, hauei falta zitzaien eskeintza guk ematea. Hau dela eta Beasainen egin zen oinezko eta autoentzako trenbideko azpi pasadizua, aurrera pausu izugarria izan zen. Bai beasaindar eta lazkaotarrrentzako mesedegarri izan zen eta hau bera egin nahi dugu Malkaskoko pa-



Hirigoien, 12
LAZKAO

☎ 16 10 16



LANCIA
ETXE - AZPI

☎ 88 10 61 - 88 29 46
ORMAIZTEGI



sabidearekin. Hau dela eta Ordizia eta Lazkaoko Udalak RENFEko buruekin hitz egiten izan gara eta laister Estatuko Garraio Ministraritzarekin hitz egingo dugu, behingoz pasadizu berri hori egin eta puntu beltz hori kendu dezaten. Era honetan Beasain-Lazkao-Ordizia baturik geldituko dira, inolako trabarik gabe behintzat.

G. Herriarekin jarraituz, nola ikusten duzu gazteak egiten ari diren lana eta hauek dituzten eskakizunak?

I. E. Azken urteotan bada Lazkaon lan ugari egiten ari den gazte talde bat, Zazpiti. Hauek, bertako tradizioak berpiztu eta gaurkotu egin dituzte eta honi esker herriak berak ere antzeman egin du. Bestetik azken hilabeteotan konfliktu bat ematen ari da Udaletxea eta gazte talde baten artean. Hauen eskaera, Gaztetxe bat lortzea da. Zentzu honetan Udalak argi dauka. Ahal duen neurrian gazteei bere eginkizunetan laguntzen die, bai ikastola edo kirolaren bidez baina ez die etxe bat emango, beren giltza eta guzi nahi dutena egin dezaten. Lehen esan dudana bezala, Udalak Kultur Etxe bat egiteko asmotan da eta bertan gazteek izango dute bai ekitaldi desberdinak antolatzeke lekua, baina beti ere udaletxearen begiradapean.

G. Goierriko industri egoera ikusiaz, krisiak ba al du irteerarik?

I. E. Goierriko egoera, gaurko egunean nahiz eta %70 industria sektoretik bizi, nik uste beste leku batzuetara baina hobe dela. Enpresa asko itxi dira hori ere esan beharra dago baina dena den, Aristrain, CAF, Kooperatiba elkarteak, eta Bilore bezalako enpresa handiak izatea gure onerako da. Hauek aurrera doaz eta horrek mantendu du ahal izan

Krisia uxatzeko irtenbidea: Goierri 2005

Lazkaoko alkate izan arren, lehenik eta behin Iñaki Estensoro enpresa gizon sutsua da. Hamaika elkarteetako partaidea da, ORKLI kooperatibako gizon garrantzitsua, baina guzi horren gainetik, krisiari aurre egiteko Goierri 2005 plan estrategikoaren bultzatzaileetako bat.

Proiektu honekin Goierriko enpresa txikien batuketa bilatzen da, ez ordea fusioa. Honekin zera bultzatzen da, produktu hobe eta merkeago baten nazioarteko merkatuan lehiatzea. Enpresa txikiek ezin dute baka-

rrik leihan sartu, norbaiten laguntza behar dute. Horretarako plan honekin asesoramendu haundi bat eskeiniz, Goierriko beste enpresen laguntza eskeini eta ematen da, guzien artean kontratu berriak lortu eta sinatzeko. Dena den eta elkarte honi esker eta elkarlanean ibili arren, enpresa bakoitzak bere pertsonalitate propioa gordetzea lortzen du, aberastasuna ekarri eta krisia uxatzeko. Bide honetatik merkatua zabalduko da eta krisitik lehenbait lehen irtetzeko aukera izango dugu.

duen neurrian gure bailara.

G. Baina, ez al da oso arriskutsua enpresa hauen dependentziaz bizitzea?

I. E. Arriskutsua da, baina gaur egun aukera bakarretakoa da. Alternatiba gisa orain dela urte batzuek Goierriko Herrien Ekintza (G.H.E.) sortu genuen. Plan estrategiko honekin enpresa txikiak ahalik eta informazio gehien izan zezaten ahalegindu ginen. Errekurtso gutxiago dagoenez, elkarren arteko laguntza izan, bateratu merkatu berrietan sartzeko, ...

Honen ondoren Goierri sortu zen. Honekin ere enpresa txikiei asesoramendua eta laguntza ematen hasi zitzaion, enpresa txikien arteko koordinaketa guzien artean krisiari aurre egiteko. Gainera oraingoz, enpresa txikiak CAF bezalako enpresa baten azpian eutsi dezaketenez, bateraturik beste merkatu batzuek bilatzen saiatu behar dira, krisiari aurre egin asmoz.

G. Azken batean hori da zuek egin

duzuen Orkli kooperatibarekin, Mondragoi taldean sartu beste merkatu batzuetara zabaltzeko, ez al da horrela?

I. E. Jendeak ez jakin arren, bailara honetako kooperatibak aspalditik elkartuta zeuden baina oraingo honetan pauso handi bat eman dugu. Kooperatiba arteko lehiak alde batera utzi eta elkarlanean lan eginez beste merkatu batzuetara zabaltzeko aukera izango dugu. Bakarrik lortu ezin ditzakegun kontratuak, taldean lortuko ditugu, kalitate handia eta prezio merkeak eskeiniz. Azken batean komertzializazio bateratu bat egitea. Denek bide hau ikusi eta bertatik jotzen badute krisiak izango du irtenbiderik.

Hemendik etorriko da Goierriko bailararen indartzea. Orduan eta azkarrago konturatu behar honetaz, orduan eta azkarrago aterako gara krisi honetatik.

 **Iker Estala**

TAPIZ ETA GAINEZTADURA
TAILLERRA

B i O K , c . B .

Ezkiaga Etorbidea, z/g.

Tfnoak: 88 80 22 - 88 79 17

BEASAIN

BERRIZ ARANBURU

ERROPADENDA

Nagusia, 8

Tel: 88 04 53

BEASAIN


Erreka garbiketak eta bide berritzeak

Enplegua sustatzeko planaren barruan, Goierriko Mendi- Nekazaritza Elkartek (GOIMEN) alde batetik eta Enirio-Aralar Mankomunitateak bestetik, zenbait lan ekin diote.

GOIMENek 8 pioi eta kapataz bat kontratatu zituen iazko azaroan, erreka garbiketara eta antzeko lanak egiteko maiatza bitarte. Arrantzako guardek markatu dituzte lehentasaunak eta non hasi eta non bukatu erreka bakoitzeko garbiketara-lanak. Udalen eta Sasieta Mankomunitatearen laguntza osoak dituzte lanotan, ibilgailu eta lokalak, zabor-bilketa, e.a.-i dagokionez. Dagoeneko Zegamatik hasi eta Ursuaran erreka Oriarekin juntatzen den AMPO kooperatiba bitartekoa garbitu dute, 8,5 km. inguru. Zegamako Olan, Zeraingo Urkulluta eta Segurako Laiotz erreken-garbiketara ez ezik, Zaldibiako Bilore enpresatik behera, Amundarain Oriarekin batzen den Arkarterainokoa egin da; Arkaka otsaile-martxoan garbitzekotan ziren, amuarrainak arraultzak jartzen ari zirela eta. Agauntza

erreka garbitzen aritu dira Ataungo Kaxetatik hasita Lazkaoraino eta erreka nagusiak, Estanda, Arriaran, e.a. ere garbitzekotan dira.

Aralarren, baso eta landa-pista eta bideen birgaikuntzan dabilta. Azken boladan 9 lagun ari dira, bi lazkaoko eta Ataun, Amezketara, Itsasondo, Legorreta, Ikaztegieta, Beasain eta Zaldibiako bana (horietako bat sukaldari dute). Asteazkenean zehar mendian egoten dira, lan-lekuko inguruko artzai- txabolan jan eta lo egiten dutela. Burutu dituzten lanen artean, Larraitzik Nañarrira doan bidean zenbait egokitze: Lareo



presai-inguruan landaketarako itxitura; Beaskingo Askatik Doniturrira Goikoa eta Azpikora urak ekartzeko tuboak ipini 2 km.etan; Beaskin inguruko zenbait luizi berreskuratze bidean jarri; Pardelustik Latosara eta Zotaleta eta Arritzagako txabolara doazen bideak egokitu eta zabaldu; Zotaletan harrizko zenbait horma egin, erortzeaz zegoen txabola bat bota eta inguruak txukundu. Burutu nahi diren lanen artean, "Antziko Ordeka" bezala ezagutzen den parajearen abereak biltzeko itxitura egin; "Kitzolaz"ko iturritik Pardelustik askara eta beste zenbait txabolekura ura eramanez, inguruko zenbait bide egokitu; Astarte inguruan, Arritzaga erreken gainean, bi zubi egin akaziazko egurrekin; Urruzti parajearen txabola berri bat egin, e.a.

Jose Antonio Irastorza Mankomunitateko guardaren hitzetan, talde-giroa ezin hobea dute, eguraldiarekin eragozpen batzuk, baina hala eta guztiz lan asko azaltzen ari dira.

Arrastoan



Mikel Irizar ormaitzegin jarra

Irizar garbete ormaiztegiak banaketxe batean lan egiten du. Esaten digunez, "ezer baino lehen, ni ez naiz profesionala". "Arrasate Press"-en idatzi ohi du sarritan, eta Arrasate Teledistan (ATB) esatari gisa dihardu,

baina bestelako pretentsiorik gabe. Mondragoeko aldizkari arrakastatsu horren hasieratik, 0 aletik hasi zen idazten, duela 5 urte, musikari buruzko atal finkoa. "Geroztik mila lan ezberdin egin dut bertan. Garbi esan dezaket bide hori egitean ikasi dudala txukun samar idazten". Zentzu horretan, aukera duen edonor animatuko luke, doaneko eskola hori aprobetxatzea.

ATB-n ere hasieratik dabil (4 urte), musika programa bat aurkeztzen. "Kaleko pertsona arruntok telebista egiteko aukera nekez tokatzen zaigunez, ezin izan nuen tentazioa gaitzitu. Eta ez naiz damutu, medioan egoteko eta manejatze ofizioa ikasi bait dut". Gaur egun, asteazkenean saioa egiten du ATB-n, "Astebete" izeneko informatiboa, asteak emandakoa errepasatu eta

gai nagusiak arakatu. "Arrasate Press"-en aldi berean idazten du. Horrez aparte, "Arko" (Arrasate Komunikabideak) elkartearen kide eta laguntzaile ere bada eta sarritan eskatzen diote laguntza, elkartearen lehendakaria urte t'erdian izanak ematen duen eskarmentua aprobetxatzeko.

Goierri gutxi etortzen da Mikel, amarengana gehienetan. Hori bai, egun fijoak baditu etortzeko: kintoen bazkaria, Sanandresak, Gabonak, hauteskundeak (botua Ormaiztegin dauka oraindik...). Komunikabideetarako afizioaz gain, kirola: mendia eta lasterketa gehienbat. Eskia ere gustoko du, urtean aste bateko bi. "Eta lagunak, jendarteak gustatzen zait gero eta gehiago" esanez agurtzen gaitu.


Eta Lazkaomendi?

Lazkaotarrok ahaztuxea daukagun auzoa ez al da Lazkaomendi? Behar ditugunean azkar jotzen dugu beraiengana, baina ezer eskaintzeko dugunean gogoratzen al dugu Lazkaomendi? Gogoratzen al ditugu Lazkaomendiko auzotarrak? Auzo honek merezi duena, txoko honetan ere tartetxoa eskaintzea beste helbururik ez dugu eta horretantxe saiatuko gara.

Hasteko, informazioa; ezagutu dezagun Lazkaomendi: 20 bat baserriz osatua, 23 bat familia bizi dira bertan, San Joan Anteportalatina ermitatxoa, Lartxain Baserri Elkartea eta frontoia (garai bateko eskolak), bi taberna-jatetxe: Albitxu baserrian Pipas eta Ixurrene, nekazal turismorako prestatutako etxea Lizargaraten (aurrerago izango dugu honi

buruzko informazio zabalagoa), herri edo kanpusantua...

Kalezu-loan bizi garenontzat berriz bete, nerbioak lasaitu eta begiak gozatze-ko leku aproposa dudarik gabe; baina noizean behingo gure bisitaldiak ikusiko ez dituen hainbat gorabehera eta arazo, izango dute zer kontatua lazkaomendi-



Argazkia: Dioni

Udalaren laguntza Ekuadorrera

"Ayuda en Accion" erakundeak Cayambeko komunitatean azken 6 urteotan zenbait osasun, hezkuntza eta produkzio arloko proiektuak garatu ditu. Olmedo distritua, Cayambeko kantoian, Quito hiriburutik 80 km. tara dago; 30.000 lagun bizi dira bertan eta erakunde ofizialek premiazko beharrei ere ez diete erantzunik ematen: osasun eta hezkuntza egoera penagarriak dira. Olmedo baso heze artean dago, lurraren emankortasuna oso eskasa da; nekazaritzarako txarra, beraz. Aldiz, lurralde hau behien hazkuntzarako oso aproposa da, egunero 15.000 litro esne produzitzen dira, horietatik %70 Quito ingu-

ruan dauden industria haundietara eramaten direlarik. Oraingoan proiektuaren helburua bertako gazte Quechuak esnearen prozesatze teknikak ikastea da, herri horietan ustirakuntza txikiak jabe izango diren gaztandegi txikiak (teknologia aurrerakoiez hornituak) sortu, nolabait bertako komunitateetako familien ekonomia suspertuz. Lazkaoko Udalak proiektu hau aurrera eramanez ahal izateko 425.000 pzta. eman zizkion "Ayuda en Accion"-i 93.ean.

 Miren Larrañaga

tarrek. Nekazaritzatik bizi dira gehienak eta aspaldiko kontua da baserri giroan auzolana: txerri-hiltzeak, bide-konponketak, norberak bere tresneria erosi ordez auzokoekin erdibana erosi eta erabiltzea... Dena dela, oraindik ere gutxiegi lan egiten omen da era honetara Lazkaomendin; gehiago saiatuz gero denentzako mesede.

Lartxaiko Baserri Elkartean bazkari eta afariak egiteaz gain, beste zerbait ere beharko omen litzateke: hitzaldiak, ikastaroak... Jendea ordea ez dago horrelako gauzak antolatzerara ohituta.

Lazkaomenditarrok, zuen txokoa ere badenez hau, nahi duzuen arte!

 Mari Joxe Madariaga
Argider Mujika

GOIERRIKO ZURAK, S.L

Inportazioko egur biltegia
Ohol, aglomeratuak, e.a.

Iribarren, z/g
☎ 88 80 23

LAZKAO



Ibares Errotako
IRIZAR ANAIK

* Errotan igotako talo-irina
* Gallina Blanca Purina banatzaileak
* Pentsu, hazi eta baserrirako tresnak
☎ 88 75 00 ☎ 88 12 09
LAZKAO ORDIZIA



Nafarroa Etorbidea, 9
Tfnua: 88 94 82
20200 BEASAÍN

Lardizabal ez zen zaldibiarra

Lardizabalen garaian, eta geroxeagoan ere ez da izan zaldibiarrik, "geroxeago" hori gaur goizera arte luza dezakegularik. Adierazpentxo hauek egitera bultzatu nauen motiboari segituan igarriko diozue. Kontua da orain hurrengo GOIERRITARRAN Frantziako Ignazio Lardizabalen gainean artikulua atera zela, "Lardizabal zaldibiarra (1806-1855)" izenburupean. Ni ez naiz fillogoa, baina **zaldibitarrek** euren buruari nola deitu izan dioten

tzateke izango. Baina badira beste herri-izen batzuk Euskaltzaindiak erdibidean ezarri dituenak. Oker ez bana-go, Azkoitia eta Azpeitia kasu horretan daude. Beraz, gure herriaren izena "mendi" edo "ibi" hitzen moduan deklinatu beharko litzakete: ibia, ibiak, ibiaren, ibian... eta ibiko, ibira, ibitik, ibirako... Horri aurretik "zaldi" jarri eta kitto!

Ganadua non larreratu

Zaldibiko Udalak helarazi digun oharren arabera, Olakosagi, Auntsita, Iturbeltz eta Artxabal arteko pinudia bota eta landaketa berriak egiten ari da, bere garaian aditzera eman eta burutu zen planari jarraituz. Landaketari dagokionez, bertako haritza, urkia eta Korsikako haltza sartu dira. Hori dela eta, Olakosagiko parrietik behera behor, behi, ardi eta gaineratiko ganaduak larreratzea debekaturik dago. Ezinbestekoa da hori horrela errespetatzea, bestela landareak sartzen ari tzea alferrik baita. Beraz, agindua betetzen ez dutenen kontra neurri zorrotzak hartzea beste erremediorik ez omen zaio geratuko Udalari. Baina ez omen du horrelakorik nahi eta ganaduzaleei dei berezia luzatzen die eskatzen zaiena errespetatzen. Bestalde, herri-terrenoetan ganaduak erabiltzeko plazoa otsailaren azkenean amaitzen. Bere garaian abisatuko da berriro noiz bota litezkeen.

Herria apaintzeko lehiaketa


Udalak, herria apaindu, eta hirigintza eta ingurugiroa hobetu litzaketen proposamenak jasotzeko asmoarekin, lehiaketa antolatu du. Bai enpresa eta bai pertsona partikularrek har dezakete parte lehiaketan. Proposamenean ager-

tu beharreko puntuak hauek dira: hobetu nahi litzatekeen puntu horren kagunea planoan adierazi, gune hori deskribatzen duen fitxa tekniko eta behar diren argazkiak. Ideia edo proposamenak presentatzeko epea martxoaren 30era artekoa da. Fitxa teknikoari eta beste zernahiri buruzko informazio gehiago Udaletxean eska daiteke. 200.000 pezeta banatuko dira saritan eta beste 50.000 gehiago argazkien ordain. Lehiaketara bidalitako proposamenen jabe Udala egingo da. Bestalde, epaimahaiak, saria emateko moduko lanik ez dagoela erabakiko balu, eman gabe utz litezke. Azkenik, epaimahia era honetan osatuko da: Hirigintza Batzordeko 2 lagun; Ingurugiro Batzordetik, 1; Zerbitzu Batzordetik, 1; arkitetua eta udal idazkaria. Esan beharrik ere ez dago lehiaketan parte hartze hutsak baldintza guzti hauek onartzea esan nahi duela.

Ondo begiratu!

Zentsu, padroi eta gisako udal-zerrenda ofizialetan agertzen ote garen edo, begiratzeko oso ohitura gutxi daukagu. Gero bozketa egun eta horrelakoetan akordatzeko gara. Ari denean sailu behar omen da esatera zaharrak dioenez, eta okerra etorritakoan alferrikako hizki-mizkietan ibili beharrik izan ez dezagun, oraintxe da garaia herriko padroi horretan gure izena agertzen den ikusteko. Padroia hogeita hamar egunez jendaurrean egongo da, nahi duenak begiratu, aztertu eta zuzendu beharrekorik ikusten bada zuzen dezaten eskatzeko.

 **Rufino Iraola**



badakit eta zilegi bekit, karobi-zulo honetara beste norbait kandela-argi handigoarekin datorren, lehenengo txinpartari eragitea. Nolanahi ere, ez da GOIERRITARRAren errua; inork hankasartzerik egin badu, errespeto osoz badiot ere, Euskaltzaindiak sartu du, haren gomendioetan horrelaxe azaltzen baita.

Beraz, hori aldatu egin behar dela deritzot, eta nik bezala beste gehiagok ere. Zaldibiaren kasua ez da Donostia-rena; Oñati edo Legazpirena ere ez li-



ZABALE
OKINDEGIA
DIETETIKA

- Mediku akupuntorea
- Pisuren kontrola
- Estetiziena

Santa María, 8 - Tel. 881211 - ORDIZIA

LOINATZ
Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak



Nagusia, 27 ☎ 88 20 07 BEASAIN

Xerapia Garmendia, Ordiziako ferian beti

Aurten egingo ditu 80 urte, baina osasunez ondo dabil horratio. Herriko Iturrioz ("Txaparrone") baserriko emakume hau 10 urterekin hasi zen "Billafranka"ko azokara joaten amarekin batera. "Orduan ez baikinien eskolara ere joaten. 14 urte nituela bidali ninduen amak eskolara "premiotako egunean" --oporak ematen zituzten egunari horrela deitzen zitzaion nonbait--. Maixtrak "multiplikat" bat jarri zidan pizarran, nik ez neukan idearik ere eta hau ikusita Ordiziara bidali ninduen 6 hilabeterako monjatara: hantxe ikasi nuen defenditzeko adina", azaldu berri dio Xerapiak berak "Kantillape" aldizkariari.



Xerapia da emakume postuzale zaharrena

Feriko kontuak egiteko ez du sekula arazorik izan, halere. Hori amaren ondoan ikasi zuen. Haseran frontoiaren pareko "arboledan" zuten postua. Oraingo plazara pasa ziren gero. Gogoan du: 1. go asteazkenean duroa kobratu zien baserritar guztiei sekulako bigoteak zituen alguazil batek. Diru asko zen ordurako. Hurrengo as-

teazkenean oso jende gutxi agertu zen "perira". Handik aurrera diru kobratzeari utzi egin zioten. Gaur, esate baterako, ez dute pezetarik ere pagatzen plazan postua edukitzeagatik. Ohitura bihurtu da Xerapiarentzat asteazkene-ro Ordiziako plazara joatea. 69 urte daramatza, beraz, asteazkene-ro Ordizia-

ko ferira joanez. Kontuak eginda, 3.588 askeazken. Guztiak pilan jarritz gero ia 10 urte egunero ferira joanez.

Gaur egun ia gauzak asko aldatu direla esan digu. FERIA ez dela lehengoa, ia kaxkartzen ari dela, eta aldaketa hau batez ere Eroski ireki zutenean gertatu zela. Goizeko 8,30tarako joaten da bere postura. Bukatu berriz, dena saldutakoan bukatzen da. Lehen enkarguak ere egiten zituen, aste osoan etxean behar zena astoan eramaten zituen; gaur egun ia ez... Urteotan gehien duena berdura klase asko izan da. "Orain gainera lehen baino klase gehiago daude. Garai batean loreak ere saltzen nituen; egun ia ez. Baina akaso gehien saldu dudana gaztaina izango da, batez ere gaztaina garaian". Asteazkene-ro bisita egiten zion kliente fijo asko zeukan lehen. Gaur ia ez. Eroski ireki zutenean nabarmen aldatu ziren gauzak.



Arantxa Arza



NAUTIKO Jatetxea
eta
IZASKUN Pentsio-Ostatua

ITSASONDO

Tfona: 88 00 12

URBITARTE Sagardotegia

-Sagardo denboraldiz kanpo ere irekirik as-
teburuetan betiko sukaldaritzarekin



Enkarguak: 888331
ERGOIENA AUZOA
882719 ATAUN

LELAR
KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA: Ezkiaga Pasealekua z/g 888824
BILTEGIA: Salvatore Industrialdea. 886070
BEASAIN

GOIERRITARRA



88 96 12

“Arrazismorik ez, baina bai desberdintasuna”. Nahiz eta gizartea dexente aldatu eta elkarren arteko begirunea handiagoa izan, gaur egun ere koloreak banatzen gaituela dio Mikel Cardosok. Gure artean bere sendiarekin 8 urte daramatza eta oso popularra bihurtu da inguruotan errepidean, “Korrika” eta halakoetan korrika egiteagatik.

20 urte zituela egin zuen geldialdia Euskal Herrian, orain 42 urte dituen itsas gizon honek. Donostian eman zituen lehen urteak eta hiru seme-alabetatik gazteena bertan jaioa da. E.H.-ra heldu zenean, ez zitzaion ezezaguna gertatu euskaldunek bizi zuten gatazka, bera gaztetan bizi izandako Cabo Verde herrialdea portugaldarren menpe baitzegoen. Han, kriolloa izan arren

bertako hizkuntza, hizkuntza portugesa dute ofizializat. Haruntza joateko asmoa badute ere, oraingoz ez dute aukerarik. Gustora aurkitzen omen dira herrian eta euskaldunen artean. Harreman onak dituzte eta laguntzak jaso dituzte dio Mikelek, nahiz lana aurkitzeko garaian makina bat oztopo izan zuen. Berak espainiar nazionalitatea eduki arren, seme-alabek ez dute NA-Nik. Atzerritarrek egin beharreko tramiteak egin ondoren, legeztatzeke jasane behar izan duten denbora salatzen du. Berostegi auzoan hainbat urte igaro ondoren, orain etxea erosi berria dute San Migel auzoan ederki bizi dira herriko “beltxak”.

Xabier Glez. Ezama



Mikel, Donostiako maratoni batean korrika.

IDIAZABAL

Jaien oihartzunak

Otsailak ia eskuartetik ihes egin badigu ere, aurreko egunetako kontuak ahaztu ezinean gabiltza idiazabaldarrok. GOIERRITARARI esker herriko jaien egitaraua eta berriak guztion sukalde txokotaraino iristea lortu dugu, eta orain amaitu direnezkerok ezinbestekoa iruditzen zaigu haien nondik norakoen berri eskeintzea.

Hasteko, XIV herri-krossari buruz, ezin hobeto joan zela esan behar da. Eguzki epelaren goxotasunean korrikalariak gogoz atera zituzten nagiak eta antolatzaileen lan bikainari esker sekulako jende multzoa hurreratu zen “Izala”. 460 haur eta 167 helduko korrikalariko tropelak artalde bikaina osatzen baitu. Kontuak kontu, asteazkenez eman genien hasiera San Blas jaiei, aurten pregoi eta guzti gainera. Igandean ez bezala, euria izan genuen nagusi eta aiton-amonek dioten bezala “barrurako giro hobea zegoen”. San Blas egunean, txirindulari proban hezurretaraino



Argazkia: Fotoetxe

busti ginen, baina hala ere jendeak oihu ederrak ateratzen zituen aterpeetatik. Arratsalderako halere barretu zen giroa, eta kiroldegian ospa-

tu ziren umeen jolasak. Ostiralean dantzarien saio aparta izan zen eta gauean ospatu zen helduen tanborrada zer esanik ez. Tanborrak euriarengandik babesteko, basura poltsatan sartu genituela esatea besterik ez da behar; hortik ondorengoak zeuok imajinatu. Larunbateko poteo dotorea erabat arrakastatsua izan bazen ere, paellak eraman zituen puntu guztiak, ostiral arratsaldeko talo eta sagardo dastaketak bezalaxe. Noski, horrelakoetan direnak eta ez direnak, herriko eta kanpotarrak azaltzen baitira. Baina tira, igandea ere iritsi zen eta, eskalada txapelketa bikain batez gain, arratsalde eta gaueko azken esprina gozatu ahal izan genuen. Gauero bezala nahiko dantza eta brinko egin ondoren eman genien agurra aurtengo jaiei. Txalo bero bat merezi dute antolatzaileak.

Aloña Galarraga

Udal liburutegia, sendotze bidean

Udal liburutegiak hiru urte bete ditu. Eta joan zen urteko balantzea egiterakoan bertako arduraduna den Iñigo Goikoetxeak dioen bezala, aurki ez da liburu gehiago sartzeko tokirik izango. Ez, nahi baino liburu gehiago heltzen delako ordea, hasera-haseratik aretoa bera txikiegia delako baizik.

Gainontzeko alorretan hona hemen zenbait datu: Udalaren ekonomi arrazoez, lautik bi ordura murriztu zen iaz, liburutegiak egunean jendearekiko zabalik duen denbora. Iazko 30 bazkide berriek 217ra igo dute bazkide kopurua, helduen multzoak gora egin badu ere, oraindik umeena izanik bazkide talderik nagusia. Liburu kopurua berriaz, 5.000ra iritsiko da urte bukaera honarako, eta mailegu zerbitzuari dagokionez, ordu gutxitzeak liburuak etxera eramateko joera haundiagotzea eragin du, hilero batz bestea 65 liburu ateratzen direlarik liburutegitik. Gai arabera, literatura liburuak dira nagusi (% 72) eta hioen erdiak haurrei zuzendutak. Bestelako edozer gauza ere aurki daiteke ordea apaletan; hasi Atauni buruz publikatzen denaz osatutako liburutik, eta inork gutxik soma dezakeen

zientzi gai izkutueneraino.

Bestalde, gauza gehienetan bezala, hastera omen da zailena hemen ere, eta behin behinik guztio egin behar genuke ikustalditxo bat liburutegira. Ez litzateke azkeneko aldia izango behin pauso hori emanez gero, eta oraindik, liburutegia non dagoen ez dakienik baldin badago, jo beza udaletxeko bigarren solairuan dagoen batzar aretoaren aurreko gela-txora. Ongi hartua izango da.

Futbito Txapelketa

Ataungo I. Futbito Txapelketa izango dena antolatu du Auzoeta Kiroldegia. Partiduak bertan jokatu



Udal liburutegiak areto txikia du

dituzte zapatu arratsaldetan, bildu diren 11 ekipoek, bi taldetan banatuta. Izen hauek jarri dizkie jokalariek euren ekipoei: Tope Gerek, Buster Keaton, Zipitriain, Potorousky Tetanovic, Eroski Taberna, Lokomotiv Zanzibar, Bota Fogo, Bakterian, Denok Bat, Ostikoz eta Guinsu.

 Joxe Begiristain

ORMAIZTEGI

Santa Ageda oihartzunak

Ezaguna zen gure herritarren artean Santa Ageda bezpera egunak izaten zuela nolabaiteko ospakizunik. Zoritarrez azken urteotan galduta izan zen ohitura jator hori. Baina otsailak 4ean, ilunabar aldera, bertso eta makil hotsak izan zuten lekua gure kaleetan. Garai batean kantari ibiltzen zen belaunaldi horren urratsak jarraitu asmoz, hogeitamarren lagun bildu ziren. Gehientzuenak gazteak zirela esan behar, belaunaldi horretako seme-alabak.

Gorriak ikusitako urritz zepa adar batzuk eskuratu eta arratsaldeko zazpirak baziren kalean kantari hasterako. Lege zaharra denez, borobilean forma-



tu, farola erdi-erdian utzi, makil eta ez-tarriak astindu. Nolabait kontra egin behar zitzaion arratsalde hotz horri. Entzuleren batek bota omen zien, azkeneko "Eup!!"-a dotore entzuten omen zelakoa. Bederatziak baziren herriri buelta emateko eta gauza ondo amaitzeko afaria izan zen "Barduliarrak" Elkartean. Hasierak omen dira zailenak, baina aurtengoa nolabait moldatu zuten. Hurrengoan jende gehiago animatzeko desioa zabaldu zuten han jardundakoek. Eup!!!

 Jon Aldanondo

Bada denboraldi-txo bat Jakintza Ikastola eta Jakintza Dantza Taldea elkarrekin proiektu bat garatu asmoz dabilzala. Gaur egun ere zerbait egiten da euskal dantzak irakasteko, Dantza-taldea hor dago eta ikasle batzuk joaten dira bertara eukal dantzak ikastera. Baina Ikastolakoen eta Dantza-taldekoen ustez ez da nahikoa eta proiektu bat zehaztu dute hemendik aurrera zaletasuna piztu eta jorratzeko. Dagoeneko ikasleek astero dute eskolordutan tartetxo bat; 5 urteko haurrekin hasi eta 4. mailara bitarteko ikasle guztiak sartuko dira lan-keta honetan. Ikastolan ikasitakoa sakontzeko aukera ere izango dute umeei Dantza-taldean apuntatu ezker.

OKeko lehen saski-baloi taldea 1. mailarako igoera prestatzen ari da. Klub urdinak bere historiako lorpenik entzutetsuena lortu du, igoerako ligila jokatzera baitoa. Taldea orain 24 urte jaio zen eta Mikel Etxarrik harrobiaren gorakadarekin zerikusi handia dauka. Bahin maila hauetara iritsita zenbait taldek aurrekontu galantak izaten dituzte jokalaria honbeak fitxatzeko



eta. Hori oraingoz ez dago OKeren esku. Bere arduraduan eta, batzuetan, "jokalaria" den Juanan Sarasolak uste du arrakasta izan arren, gehiago eskatu behar zaiola taldeari.

Datorren maiatzak 15ean 482 urte beteko ditu Ordiziako azokak. 5 mendeotan zenbait aldaketa izango ziren, baina azken urteotakoak handienak, Eroski ireki zenetik seguraski. Azken 10 hilabeteotan, Asun eta Gema Iztueta zaldibitarrek ikerketa bat burutu dute E.H. zenbait feriei buruz; Ordiziakoa tartean. Aidanez, azoka hauek zaharkituta geratzeko arriskua dute, beste supermerkatu eta antzekoekiko lehian galtzaile. Nahiz eta bertako pro-

duktuak freskoagoak eta naturalagoak izan, jendeak, gazteek batez ere, ohiturak aldatu ditu erosketak egiteko orduan.

Beste zenbait artisauen artean, Jose Ignacio Perez ("Botero") ugalgilea saritu berri du Gipuzkoako Merkatarl Ganbarak bere lana eskertu asmoz. Bere gurasoengandik jaso zuen ofizioan, "Botero" k mende

erdia darama larrua lantzen eta ondorengorik ere badu gainera. Bere anaia bidaltzen dio lehengaia Lizarriatik eta berak bihurtzen ditu baserri eta industria munduetarako erabilgarri. Plastikoei ez dute beldurtzen ugalgilea, larrua oraindik beharrezkoa bait da.

Laister beteko ditu 125 urte Ordiziako suhiltzaile talde borondatezkoak. Berak dituen ezaugarrien modukoan artean Estatuko antigualena dugu. Diego Rivero kalean 15 urte egon ondoren, iaz pasa zion testigua Goierriko suhiltzaile parkeari eta itxi egin zen. Dena den, boluntarioak profesionalekin dihardute.



ANZIZAR, S. A.

Volkswagen
taldea

Autoelektrizitatea
eta mekanika

Beasain-Zumarraga, 46 Kma.
☎ 88 17 00 - 88 17 04 BEASAIN



Giro jator eta atsegina

BASAKANA

ITURRIOZ 11
BEASAIN

**JAUREGI
TOLDOAK s/l**

Tfonoak: 880243 - 880133
BEASAIN



Pintxoak
Ogitartekoak
Bazkariak
Afariak

880035

ORDIZIA

IPARRAGIRRE ANAIK, C.B.

KARROZATEGIA

Hiribarren, 24
Tfno: 88 95 83

2010 LAZKAO
(Gipuzkoa)

Tomas Zumalakarregi

Ormaiztegin jaio zen, 1788.eko abenduaren 29an. Bere aita Frantzisko Antoniok idazkari-tza zuen bizibidetzat. Maria Imazekin ezkondu eta 11 seme-alaba izan zituzten, azken- aurrekoa izan zela Tomas. 1792.ean hil zitzaion aita. Senide zahar guztiak banatu beharra izan zuten eta ama gelditu zen ume txikiekin. Txikitandik azaldu omen zuen izaera bizkorra Tomasek, eta garbi ikusten bide zen agintzeko zituen dohaiak. 13 urte bete zituenean Idiazabal joan zen, bere lehengusua zen Pedro Uretarekin batera, aita bezala eskribautzan trebatzeko asmoz. Gero, lan hori hobetzeraz Iruñeara abiatu eta bertako eliz auzitegi idazkaritzan egin zuen lan, Frantzisko Ollorekin. Honek alaba bat zuen, Pankrazia, urteak igaro eta gero Zumalakarregiren emaztea izango zena. 20 urte zituela zalaparta handia sortu zen Napoleondarren aurka. 1808.a zen. Independentziaren aldeko gudura joan zen bolondres (boluntario). Zumarragako Jauregi "Artzaia"ren menpe hasi zen gero gerrilan Gipuzkoaldean. Zaragoza aldera abiatu eta Portilloren batailoiekin bat eginda jarraitu zuen. Ez zen izuturik geratzen eta horietako batean frantse-



sak menderatu zuten; espetxealdi hura ez zen luzea izandu: gau batean amarrak askatu eta ihes egin zuen. Burru-kaldi askotan suertatu zitzaion aritzea, Azpiroz, Irurtzun, Aretxabaleta, Bergara, Loiola...

Guda-buru goratua izan zen 1813.eko maiatzean, Freire nagusiaren menpean sartu eta Irungo San Martzialeko enkontrua izan baitzuen. Gudaostean agintari izenpetu zuten, bere merituz. Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko probintziek ere berehala onartu zuten izendapena eta Zumalakarregik euskal

armada indartsu, trebe, arin eta harri-garria eratzen du. Gerra garaian gora-behera haundiak ikusi ondoren toki batean eta bestean, 1835.eko ekainaren 10ean Bilbon agertu zen Zumalakarregi, 10 batailoi eta 8 kainoiekin. Hurrengo egunean burrukaldia hasi zuten Begoñatik. Etxe bateko leiho batetik begira jarri da eta bala bat sartu zioten eskubiko zangoan; Berak nahi bezala, Zegamara eraman zitzaion eta konfiantza osokoa zuen Petrikillo zeraindarra izan zuen sendagile (ikus 5. GOIERRITARRA). Hark atera nahi izan zion zangotik bala; zangoa zeharo gaiztotu eta hortatik gaisotu zen On Tomas. Zegaman hil zen 1835ko ekainak 24ean. Bertako elizako hilobian datza, bere irudia agertzen den monumentupean. Zumalakarregi ez zuen gizon haundia izan behar, baino bai ari oneko gizona, indartsua, sendoa, begi biziduna, kementsua, zirt edo zart egiten zekiena, buru argikoa. 1832.ean Ferrolgo gobernadore zela badakigu. Maok ere ezagutzen omen zituen bere taktikak. Ormaiztegiko seme trebea Historia da dagoeneko.

I. Arandia

EZ EGON BEGIRA !

Z·M

Gipuzkoako Foru Aldundia
MUSEO · ZUMALAKARREGI · MUSEOA
Ormaiztegi · Gipuzkoa
Diputación Foral de Gipuzkoa

Casa · Iriarte Erdikoa · Etxea
20.016 Ormaiztegi · Gipuzkoa
Tlf.: 943 · 88 99 00
Fax: 943 · 88 01 38

ZATOZ ETA PARTE HAR EZAZU

- ARTXIBO ETA LIBURUTEGIA: XIX mende-ko agiri, irudi, aldizkari, liburuak...
- ARGITALPENAK: Aldizkari, katalogo, bideoak...
- IKERKETA BEKAK, ERAKUSKETAK, eta abar.
- MUSEOKO EKINTZAK:
- Ikonografia lantegia: musika, liburu eta komikiak, puzzleak eta abar.
- Goierriko neska-mutilentzako ariketak:
- * Astelehenetan: 12-14 urte.
- * Asteazkenetan: 9-11 urte.
- * Ostiraletan: 6-8 urte.
- Etorri museora eta ikasi ezazu gure jokoan bidez!
- BISITA ORDUTEGIA:
- Astelehenetik ostiralera: 10etatik 13etara eta 15etatik 19etara.
- Larunbatetan: 10etatik 14etara eta 15'30etatik 18'30etara.
- SARRERA DOHAINIK

KUKO
Jatetxea

—Haragietan aukera handia
—Okeletan mundu oso bat

Igandeetan jai, erreserbak salbu
(bataio, jaunartze, e. a.)

Berjaldegi Plaza, z/g 88 28 93
ORMAIZTEGI

IBERDROLA AFIZIONATU TALDEA ILUSIOZ DENBORALDI BERRIRAKO

Jon Lazkano: "Gure filosofia txirrindulari gazteak aurrera ateratzea da"

"Iberdrola taldearen filosofia, baseko txirrindularitza aurrera ateratzea da, hemengo jendearekin lan egitea. Lan honen ondorioz, zerbait ateratzen bada hobe. Lasterketak irabazi nahi izan ezker, jende ona fitxatu behar da, baina guk promozioa egin nahi dugu, gazteei lagundu". Adierazi digu, Iberdrola txirrindulari taldeko zuzendari den Jon Lazkano beasaindar gazteak.

Duela 4 urte, Iberdrolak, oinarriko txirrindularitza bultzatzeko planteamendu bat egin zien txirrindulari elkartei. Honela sartu zen Beasaingo Loinaz Txirrindulari Elkartearen proiektu honetan. Beasaindarrez gain, Oñatiko eta Zarautzko elkar-teak sartu ziren 3 bizkaitar bezalaxe. Gaur egun Zamora, Palencia eta Cáceres aldean ere badituzte taldeak. Oinarrietatik hasi ziren lanean, lehenik eskolekin eta kadeteekin, bigarren urtean, jubentilekin lan egin zuten eta urte horretan pentsatu zuten afizionatu mailako taldea osatzea. Ideia elkarte guztietan aurkeztu ondoren Loinazek erabaki zuen lan hori bere gain hartzea. "Beraz, proiektua ez da afizionatu mailako taldea soilik, dena baizik: jende gaztea, eskolak..." dio Jonek.

Babesle nagusia Iberdrola duten arren, Sanchesky eta Marotias ere kolaboratzaile dituzte, lehena jan-



tziekin eta bigarrena txirrindu eta materialekin. Eta aurrekontuei buruz: "Afizionatuentzat ez daukagu aurrekontu jakin bat, babesleak proiektuarentzat, bere osotasunean, ematen du dirua eta denentzat batera erosten ditugu erropa, materia eta-barrak".

Denboraldia hastear

Aurtengo denboraldirako 25 txirrindulari dituzte: 12 lehen mailakoak eta 13 bigarrenengoak: denak gi-

puzkoar eta bizkaitarrak. Hauen artean 4 goierritar daude: Asier Arakama eta Iñaki Odriozola beasaindarrak eta Jon Mikel Galparsoro eta Albaro Villa lazkaotarrak. Zuzendari lanetan Pello Garaialde eta Jon Lazkano beasaindarrak ari dira, mekanikoa Gorka Eskisabel zaldibitarra da eta Sonia Rojo legazpiarra berriz masailaria.

Ilusioz azaltzen dira, martxoaren 6an, batzuk Laudion eta beste batzuk Atarrabian, hasiko duten denboraldi berrirako. "Gu Lehendakari eta

Irakur

EUSKALDUNON Egunkaria

Txapeldun sarietan oinarritzen gara. Hauez gain klasika garrantzitsuenak eta zenbait itzulietan parte hartuko dugu. Adibidez martxoaren 19an Espaini mailako garrantzitsuenetakoa den Zamorako Iberdrola klasika, apirilean Arabako itzulia, Maiatzean Bidasoakoa, uztailan Bizkaiko Bira... Maiatzetik aurrera hainbat lekuetatik deitzen digute, baina jendeak duen momentuaren arabera erabakitzen dugu joan edo ez", dio Jonek. Iaz Irlandako itzuli batean egon baziren ere, aurten Lانداتاکو batean parte hartzeaz gain, kanpora ateratzeko asmorik ez dutela gaineratzen du.

Afizionatu maila orokorrean

"Txirrindulari onenek profesionaletarako jauzia egin dute, iaz aurrean, haien ondoan ibiltzen zirenak izango dira aurten nabarmenduko direnak. Gure taldeko bi egon litezke hor, puntan: Iker Zabaleta zumaragarra eta Jon Odriozola oñatiarra. Gero, jubeniletatik igo den jendeak ikusi egin behar zer egingen duen". Iberdrolakoek beraien txirrindularietan esperantza handia jarri badute ere, txikiak ikusten dira, aurrekontu handiak eta jende asko dituzten taldeen ondoan.

Goierrin hiru profesional baditu-

Lau gazte goierritar

Asier Arakama Laplace: Beasaindarra, 1973.eko azaroaren 27an jaioa, lehen mailako afizionatua da. Iaz lasterketa bat irabazi zuen, Erandion, Hondarribiko Unitrabel taldean zegoela. "Todoterreno" a den arren, sprintean nabarmentzen da.

Jon Mikel Galparsoro Insausti: Lazkaotarra, 1974.eko martxoaren 28an jaioa, bigarren mailako afizionatua. Iazkoan itzuli batean parte hartu zuen eta ondo defenditu zen denboraldi guztian zehar.

Iñaki Odriozola Egiguren: Beasaindarra, 1971.eko abenduaren 28an jaioa, lehen mailako afizionatua. Iazkoan osasun arazoak zirela eta denboraldi pattala egin zuen, 2 edo 3 postu lortu zituen arren. Aurtogorako moral handiarekin dago.

Albaro Villa Garmendia: Lazkaotarra, 1975.eko apirilaren 12an jaioa, bigarren mailako afizionatua. Iaz Gipuzkoako txapeldun izan zen jubencil mailan. Beraz, afizionatueta lehen urtea du, denean ondo defenditzen den lazkaotarrak.

gun arren, nola ikusten ote ditu Jonek behetik datozen gazteak? "Bizpahiru urteetan ez da jende berririk atera, Aldanondo, Garmendia eta horien ondoren geldialdi bat egon da. Baina orain gazte onak datoze, guk taldean ditugunez gain, jubeniletan esaterako, Aritz Garaialde (Pelloren semea); Ordiziko taldean, Sarasola, Ulanga eta Zugazti legorretarra ere ondo dabilta".

Afizionatueta dabilen zuzendaririk gazteenetakoa da Lazkano, 26 urterekin, halere, honek ez du kokiltzen beasaindarra. "Bai normalean jende edadetuagoa dabil. Orain dela

4 urte, hasi nintzanean agian gaztegi ikusiko ninduten baina gaur egun ez dut inongo arazorik, ondo moldatzen naiz zaharragoekin". Hain gazte hasita, egunen batean profesional mailara iristeko ideia ez dauka erabat baztertuta: "Hori ezin da inoiz esan. Ilusioa badut, etxeren batek edo norbaitek libre zaudela ikusi eta aurrera joan daiteke. Baina ez da lan finko bat eta ez dakizu zer aurkituko duzun".

 Mikel Albisu

IBAI - ONDO



**ZURGINTZA
HALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK**

Tailer eta erakusketa:

Antzizar Auzoa, z/g.

Tfnoa: 880543 BEASAIN




- ✓ Eguneroko menua, 750 pzta.
- ✓ Karta, batz bestea, 2.000 pzta.

☎ 88 10 19 ATAUN S. Martin

MASAJISTA DIPLOMATUA

Xole Zubeldia

Euskalerria, 8 ☎ 88 10 52
ORDIZIA



Autowag, s.a.



Errepide Nagusia, N-1. 419 Kma.
Tfnoak: 88 82 66 - 88 82 54 BEASAIN

**Nolako Etxea
amesten duzu?**




ETXEBIZITZA UNIFAMILIARREN BI PROIEKTU HASTERA GOAZ GOIERRI BAILARAN

⇒SAR ZAITEZ HASIERATIK GUREKIN

- Zure etxebizitza diseinatzeko
- Pisu bat baino merkeago aterako zaizu

CONSTRUCCIONES  ERAIKUNTZA
ZALDIBI

ZALDIBIA Tfonoak: 88 64 35 - 16 00 89 Faxe: 88 93 07



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxegintzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, iturri eta gehigarriak
- Hidromasaia bainerak eta saunak
- Subaju eta ikatz eta egurrezko sukaldeak



**Barandiaran
ZERAMIKAK**

Senpere, 7 ☎ 88 79 72
BEASAIN



*i*txura baino
gehiago...

ANTZA

FOTOKONPOSAKETA

INPRIMATEGIA

Industrialdea 1-2 • ☎ (943) 37 15 45 - Faxe: (943) 36 10 48 • 20160 LASARTE-ORIA